

EUSKARA, JALGI HADI PLAZARA! JALGI GAITEZEN KALERA!

Artekaleren bultzadaz, hemen elkartu garen konpainia guztiak Euskal Herriko kaleetan erakusten dugu gure artea, herritarrengandik ezin gertuago, kultura gure hiri eta herrietako txoko guztietara zabaltzeko asmoz. Ugariak eta askotarikoak dira gure lanak, alaiak, tristeak, jostariak, harrigarriak, barregarriak, gogorak, freskoak, arinak, sakonak, txikiak, erraldoiak... Baina **denok dugu zerbait komunean, oinarri garrantzitsu bat: euskaraz lan egiten dugula.**

Zorionez, gero eta konpainia gehiago gara euskaraz sortu eta euskara gure kaleetara eramaten ari garenak. Baina are gehiago izan nahi dugu eta, horretarako, **Euskal Herriko konpainia berri, zahar, txiki eta handiei euskaraz sortzeko deia egiten diegu.** Izan ere, kaleko arteek naturaltasunez, biziminez eta itxaropenez betetzen dituzte gure eguneroko bizitzaren agertokiak. Eta, gure lanen bitartez, euskarak ere naturaltasunez, biziminez eta itxaropenez betetzen ditu gure kaleak eta plazak.

Horregatik aldarrikatzen dugu euskarazko kaleko artearen indarra eta garrantzia gure hizkuntzak, gure kulturak eta gure gizarteak aurrera egin dezaten. Gure hiri, herri, auzo eta plazetan euskara entzuten den bakoitzean, pauso handi bat ematen dugu gizarte anitzago eta biziago bat lortzeko bidean. Eta, horregatik, irmo esaten dugu **hiri, herri, auzo eta plaza gehiago behar ditugula euskarazko kaleko arteentzat.** Euskaraz sortzen dugun konpainien aldeko apustua biderkatzeko unea da, kultura bizi baten alde.

Baina plaza gehiago bakarrik ez. Begi, belarri, mingain eta bihotz gehiago ere ezinbestekoak dira. Horregatik, **euskaldun zahar, berri, txiki, handi, erdi, oso, aktibo, pasibo, alai, triste, mehe, zabal, beltz, zuri, berde eta urdinei, guzti-guztiei, kaleko arteez goatzera etortzeko dei egin nahi diegu.** Ikusle eta artista, denon bultzada behar-beharrezkoa da euskarak gero eta leku gehiago izan dezan gure hiri, herri eta auzoetan. Publikoaren beharra dugu. Elkarren beharra dugu. Eta euskarak gu denon begi, belarri, mingain eta bihotzen beharra du. Etorri, ikusi, geratu, gozatu eta gomendatu.

Lau haizetara esan nahi dugu: Antzerki gehiago, kale gehiago, euskara gehiago.

Euskara, jalgi hadi plazara! Jalgi gaitezen kalera!



artekale

Euskal Herriko Kale Arteen Elkartea
Asociación de Artes de Calle del País Vasco